

ZAR

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

176n. Zenbakia Uztailla-Dagonilla
1993



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



MARKINA'KO BERA-KRUTZ
LEKAIME MERZEDARIEN IKASTETXEAK
75 URTE
LURGIN - BATXILLERREKO
IKASLEAK

IRU OSPETSU



UGARTE

Eguenetan Zornotza-Euba'ko "Lauaxeta" Ikastolatik, berebil aundi guztientzat dan bidez, Bilbao barrura eltzen nazenean, Udaletxearen aurrean, Nerbion ibaiaren uretan, itxasontzi txiki bat ikusten dot mastil luzeagaz, beste ontzi aundiago batzuren ondoan, apal.

Diñodan itxas-ontzi onek, izki aundi ta laburrez mastillari lotuta auxe idazkia dauko: Euskadi-Europa'93-BBk.

Beste alde batetik, izparringiz jakin dodana jatort burura, gure gizandi ospetsu bateri jazorikoa. Geure aldiko gizona da, gugaz Getxo errian bizi dana, Ugarte itxas-gizona.

Gizon onek egite itzala egin euskun: 30.000 milla itxasoz eginez, ludi osoa ingurutu. Orrexegaitik, Euskadi osoak berari dago-kion omenaldi orokorra egin eutson.

Bost illebeten ta egun bi bear izan ebazan eta ainbeste ta ainbeste arrisku, galzori, jauspide, oial-ontzia berbera be apurtuta. Zuloz beretik dago Nerbion ibaiaren ondoan, Udaletxearen aurrean dan Uri-bitarte'n, Bizkai'tar eta Euskadi'ko guztiok gogoratu dagigun Ugarte jaunaren gorengo eginkizuna.

UNAMUNO

Beste gizon ospetsu bat izan gendun Euskadi'n: Unamuno jakintsua. Onek Gipuzkoa'n ebazan senide batzuk, ez dakit an jarraitzen daben, baiña berau Bilbao'n jaioa zan, 1864n. urtean, eta emen geratu nai izan eban euskerea irakasten, baiña Arana ta Goiri'tar Sabin

IÑAKI DEUNA

Eta zein irugarren ospetsua?

Loiola'ko gure Iñaki deuna. Sarritan abestu dautsagu berari "Iñazio gure Patroi aundia, Jesus'en konpañia fundatu eta dezu armatu".

Dublin'eko aldizkari bat artzen dot illero, arpidetuta nagoalako. "Word" da bere izena. Eta oraintsu agertu dau Fater Neary josulagunaren idaz-lan bat eta auxe diño: josulagunen lagundia Euskotar batek irasi eban orain 500 urte, Paris'en, 1534'an. Jesus'en lagundiaren erri-rudi bat nai ba'dogu, gogoratu dagigun, eurak, josulagunak. munduko erri guztietan aurkitzen dirala eta berbea emonda dagozala Aita Santuak eta euren Nagusiak bialtzen dabezan toki guztietara joateko.

Iñaki deunaren lagunik aundiena beste euskaldun bat izan zan: Xabier'eko Frantzisko. Au Japon eta Indietarajoan zan misiolari.

Idaz-lantxu au amaitu baiño len esan bear dogu Unamuno ta Iñaki Deuna ospetsu nabarmenak, zatika, gipuzkoar eta bizkaitar zirala, Unamuno Bilbao'n jaioa baiña aitaren aldetik Bergara-Gipuzkoakoa eta Iñaki Deuna, Gipuzkoa'ko Loiola'n jaioa baiña ama Bizkaia'n dan Ondarroa'koa. Batez be, biok euskaldun eta euskotaren biotzeko onoinenez beteak zirala.

LETONA'k (+)



**Eusko Jaurlaritzaren
Laguntzaz.
Kultura Saila**

IRAKURLEAI OARRA

ZER aldizkariak eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'k ba-dauke Bilbao inguruan urteko arpidetza eskuratzeko erea. Etxerik etxe joaten da kobratzaillea. Baiña gauzea ez da ain erreza errietan. Orregaitik eskari au egiten dautzuegu: Bialdu eiguzue txartel edo txeke bat. EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren izena ipiñi ta 1.500 pezeta dirala idatzita. Txartel ori sartu karta-azal baten eta gaiñean zuzenbidea ipiñi: EUSKERAZALEAK ALKARTEA.

Colon de Larreategi, 14, 2º, eskoia. 48001 BILBAO.

AITASANTIAGO LETONA JOAN JAKU

(PASIOTARRA)

GOGOANGARRIA

Gure inguruan sarritan jazoten dira gogoangarriak diran gauzak, eta berez ain gogoangarriak izan arren, zergaitik edo agaitik, errez aiztuten diranak.

Olako bat gogoratu-bearrean gagoz gaur.

Amasei urte dira, aiztu bear ez dan egun baten, Aita Letona pasiotarra nigana lenengoz urreratu zala. Ez neban ezagutzen, baiña itxaropenak emoten dauan ausartasunak eraginda, auxe esaten asi jatan:

Bizkaieraz idatzitako aldizkari bat argitaratu bear dogu!

Baiña zuk uste dozu aldizkari bat argitaratzea ain erreza dala?

Zergaitik ez? Zu arduratu zaite argitaratzeko eta neu arduratuko naz ortik sortzen diran gaztuak ordaintzeko bear diran laguntzak aurkitzeko.

Ez zan konturatzen bere berba orreik zelako lana eta ardurak ekarri eikeezan.

Orretarako lenengo bear ziran gauzak aztertu genduzan: Zuzendari bati, idazkola, irarkola, idazleak eta ordainketa.

Zuzendaritza neure gainean geratu zan. Nik ba-neukan orretan ikasi apur bat, Jon Beiztegi'ri AGUR'en zuzendaritzan laguntzen neutsolako, eta arduratsu artu neban lan ori.

Oiñarri-oiñarrian laguntzaille izango zan erakunde bat be bear genduan eta batzarra be euren etxean zan ezkerro, EUSKERAZALEAK Alkartea bururatu jakun. Une on baten egoan erakunde au Batzordea be barriztatu-barria zalako.

Guk egindako eskintza pozik artu eben eta arrezkerro, ZER'en eta EUSKERAZALEAK ALKARTEA'ren arteko artu-emonak geroago ta obeak izan dira beti. Orrez gainera, beste erakunde batzuren laguntza be bear izan da, batez be agintaritzakoena eta Aurrezki-Kutxena. Ori be lortu zan eta aurrera egiteko gertu gengoan.

Idazleak be laster agertu jakuzan eta pozez ekin dautsagu lanari.

BATZAR BAT:

Andik ille batzutara, niri esan eustana beste batzui be esaten eutselako, talde bat berotu zan eta Batzar bat egin gendun. Batzarkide nortzuk izan giñan ez daukat ain argi, baiña izen oneik gogoratu neikez: Josu Arenaza, idazki au idazten nagoan Martin Olazar, Iñaki Eugorrola eta Anton Landajuela. Besteren batzuk be izango ziran bear ba'da.

GAI AZTERTUAK

Ez da aiztu bear, ille batzuk baiño ez zirala AGUR aldizkaria argitaratzea amaitu zala. Guk gauza apalago bat eta illerokoa egin gura genduan.

AITA LETONA'RI ESKER ONA

Aita Letona'k beti izan dau maite gure aldizkaria eta berak al izan dauan neurrian eta moduan, idatzi be sarritan idatzi dau gure orrietan. Gauza egokia da ba, gure artetik joan ondoren, lekaide apal oneri zor dautsagun esker ona agertzea. Berak beti maite izan dau Bizkaia eta beronen euskerea, orregaitik uste dogu an dagoan lekuan gure alde otoitz egingo dauala.

Oraindiño ainbat lan daukaguz berak idatziak eta nozbeinka argitaratuko doguz interesgarrienak eta egokienak gitxienez.

Ez genduan uste ZER' ek ainbeste urtetan iraungo ebanik. Ain bildurti eta apal asi genduan lan ori! Baiña zorionez, oraindiño bizi gara ta jarraitzen dogu ainbeste laguntzailleri eskerrak.

DIAMANT - ESTEGUAK



Markina'ko "Bera - Gurutz" lekaimetxea ta bere euskal-ikastolea.

Markina'n dagozan MERZEDE'TAR MISIÑO-LARIAK, Erri txukun orretara eldu ziranetik euren 75n. urtea ospatu dabe.

Urteurren ori ospatzeko Jai eder bat antolatu eben eta ori Bagillaren 7'an izan da. Benetan jai ederra ta sendi zabal eta eder baten kutsuaz egiña.

Asieran Meza Deuna entzun genduan eta emoillea, Gerrikaetxebarria'tar Andoni, Bizkai'ko Eleiz barrutiko Bikario NAGUSIA izan zan. Laguntasun bikaiñetarikoa, "Xemein Abesbatzak" emon eban, euren abesti gozo ta sentikorrak obeto eziñik abestuz.

Meza ori, euskeraz, latinez eta zeozer gasteleraz egiña izan zan. Olan geure euskera eder eta maitea zoritxarrez ulertzen ez dabenak gastelera be entzun eben eta, danontzat, txikitatik entzunda euki doguzan latinezko zati politenatarikoak lagundu eben.

Meza emoille Jaunak bere sermoia ondo bai ondo gertauta eukan eta olan zatika ta txandaka euskerea ta erdere erabilliaz, iñor aspertu barik danontzat itz egin eban gai ederra erabilliaz, Irutasun Deuna aitatzuz, Bere eguna be ba zalako, egun zoragarri orretan.

Eukaristia amaituta lekaimetxe barrura joan giñan eta, antxe, ainbat ezagun eta adiskidek alkar agurtu genduan.

Jolas-tokian, dantzariak, auspo-soiñulariak, txistulari ta bertsolariak euren ekiñaldi txalogarriak bete ebezan. Onein artean artu doguzan izenak ementxe dozuez:

Bertsolariak: Goti'tar Unai; Ibarra'tar Eñaut; Muñozguren'dar Erramun; Goxenola'tar Joseba ta Ibarra'tar Iratxe.

Dantzariak: "Zerutxu" taldea.

Trikitilariak: Olasolo'tar Estibaliz eta San Martin'dar Alaitz.

Auspolariak (Akordeolariak): Erriko Muxika taldekoa.

Txistularia: Guztiz ospetsu ta gorengo maillakoa dan Ansola'tar Felix, olako Jai garrantzitsuetara ezin ebalako utsik egin.

Ekiñaldi orren tartean, bai askotariko edariak eta baita be ago gozoko jate ugariak emon euskuezan.

Bitarte orretan, poztasunez alkar-agurtu genduzan lekaimetak eta izandako ikasleak.

Lakaimen artean, ba zan Lopez de Uralde'tar Isabel adoretsua, bere agindu pean "Batxiller Laboral Agrícola" deritxon ikasketea ezarri zan eta bera eta Ondarra'tar Juana izandakoa, izan ziran batxiller

orren bultzagillerik onenak. Orain Berriz'en dago, baña ezin eban utsik egin urteurren orretara, Markiña'ko lekaimetxea bere barruan daroiala uste dogu-ta.

Gaur egun lekaimetxe orretan dagoan euskal ikastolaren Nagusia dan Kareaga ta Baskaran'dar Amparo aurkeztu eusten. Guztiz beargin itxura emoten dauana ta danok agurtu-guraz arduratuta egoana benetan.

Alkar-agurtu genduan Alkate Jauna ta bere barnean ondo sartuta daroan arazo bateri buruz alkar-izketa garrantzitsu bat be izan. Bere betiko izaeran, Jaun onek adoretzu, gauzak artez eta ondo egin daroaz beti erriaren onerako.

Ikasle izandakoen artean Berriztar bik ezagutu ninduen eta pozarren aurreratu jatazan ni agurtzera ta neuk be, nortzuk ziran esan eustenean, poztasunez agurtu nebazan: eurak Arriaga'tar M^a Purita Gorroño 'tar Garbiñe, ikasle argiak eta beargiñak benetan izan ziran eta orain, bata irakasle lez ikastola baten erakusten dakusgu ta bestea "A.T.S." egin zan eta anbulatorio deritxon osagintzan lanean diardu; batak zein besteak euren eguneroko lanak ondo betetu oi dabez eta gañera pozik euren zeregiñakaz.

Gero beste ikaskide askoren barriak emon eustezan eta olan jakin neban nundik nora dabiltzan. Eurak lez, Lurgiñetako batxillerra ikasi ebenak gero danetara jo dabe. Au da:

– batzuk gaixo-osategirako ("A.T.S.") gertatu ziran eta olako tokietan euren onenatariko egin-bearra betetzen dabe.

– beste batzuk irakasle egin dira ta orain ikastoletan erakusten diardue.

– Banaka batzuk lurgin zabalkunderako arazoetan (extension agraria deritxon arloan) sartu ziran, euren ikasketak osotu ondoren, eta oba eziñezko lanean diardue.

– bat, gitxienez, Lurgin Ezagulari (Perito Agrícola) egin zan.

– beste batek "ANITZ" izeneko lora-denda txukun eta polita jarri eban Donostia'n.

– bizpairuk banketxetan lortzen dabe euren eguneroko ogia.

Ogi-bide orreik lortzeko, lenarria Markiña'ko MERZEDARIATARREN lekaimetxean lortu eben eta ori poztasunez, biotzez eta esker onez gogoratzen dabe.

Lurgin arazoagaz amaitzeko, arlo orretako ikasleak landatu ebezan madari-ondoak lekaime batek erakutsi eustazan eta bai itxuraz eta bardin zaintze aldetik guztiz ondo aurkitzen dirala ikusi neban, naiz eta naiko urte igaro dirala lurreratu ziranetik.

Orain, labor ba'da be, aitatu bearra da 75 urte luzetxu orrexetan Markiña'ko MERZEDARIAK egin dabena. Gitxienez auxe da:

– 1.917'an: Eskola bategaz asi.

– 1.945'an: Eskolea zabalagoa egin zan.

– 1.961'an: Barrutegia (internadoa) jarri eben. Eta "Laboral" deritxon Batxillerra ezarri be, baña bietariko itxuretan, au da: Langillen idazkaritzarako (Administrativo) ta Lurgin arazoetarako (Agrícola).

Bietatik urten ziran ikasleak euren lana aurkitu eben edo, batzuk egin eben lez, beste ikasketa nagusiak egin, Markiña'ko Ikastetxe ontatik guztiz ondo gertautarteten ziralako.

– 1.968'an: Euskerazko klaseakaz asi.

– 1.971'an: Erriko ikastola bategaz bat egin eban.

– 1.972'an: Txikientzat ikastolea.

– 1.975'an: Euskerazko "D" eredia jarri eben.

– 1.985'an: Euskal ikastola. Eta gaur-egun onegaz-jarraitzen dabe.

Ikusten dan lez, Markiña'ko MERZEDARIATARREN LEKAIMEAK bete dabenean lana guztiz garrantzitsu ta txalogarria da, euren elburua ikasleak ondo gertauta ataratzea izan dalako. Eta geure ustez, ederto lortu dabe asieratik euren asmo eder ori. ZORIONAK ba, biotzez, egin dozuena gaitik!

Argitasun labor onegaz, zuen MENDE-URRENA bete al izango dozuena arte, agur bero batz amaitzen dau zuen betiko adizkide danak

EGILEOR'TAR JON

BIZKAITARRAI BIZKAIERAZ

BADIOLA'TAR LEONARDO

Franzizkotarra

"EMAN DA ZABAL ZAZU"

Emon, emonkorra izan, eta frutua zabaldu, orra or, izadiaren eta gizadiaren zeregiñik goresgarriena.

"Gernika'ko arbolak", fruturik onenak emon eta zabaldu ditu mundu guztian, batez be, euskaldun zintzoen biotzetan. Zelako frutuak? Azkatasuna eta aber-tzaletasuna, eusko abendaren eta legearren leialtasuna.

Laterri askotan, Euskal Etxeetan, ikusi ditut Gernika'ko aretxaren landare bigun eta joriak. Biotz-eragin samur ta gozatsua nabaitzen da euren gerizpean.

Baña landarerik ederrenak, orraitio, Gernika'ko aretxaren gerizpean sorturiko giza-seme jatorrak ditugu. Gizon burutsu ta jakintsuak, lege-gizonak, erri agintari izen aundikoak, euskera-zale txit argiak, elerti ta ereserti zelaietan oso argi eta trebeak, maixu jakintunak, eliz gizon eta mixiolari santuak.

Euren artean eliz-gizon bat aitatu nai dot idaz-lan ontan: BADIOLA'TAR LEONARDO, frantzizkotar jatorra, mixiolari ospetsua, eta eliz-legeetan gorengo maillakoa. "Eman da zabal zazu". Aita Leonardok bete-betean eta oparo zabalduko dau Barri Onaren azia eta Kristo'ren grazia.

GAITASUNA

Badiola'tar Leonardo Gernika erri ederrean jaioa dogu. (1856, jorraitlak 8) Naiz ta sendia edo familia izan gizartearen atea eta asiera, jaiobarri dan ume ba-koitzaren aurrean itaun au egin geinke: "Zer izango da gero ume au?. Izan be ume askok sortzetiko gaitasuna ekarri dakarre. "Artze ona dau ume onek", esan oi dogu gure artean.

Sortzetiko gaitasun ori azaldu eta agertuteko, baserrietako umeek ez dabe izan beti aukera eta erreztasunik, batez be joan diran gizaldietan. Zabalduko al dira gure baserrietako mutikoentzat etorkizun argiaren atek?. Bai, zorionez. Kristo gure Jaunaren izenean ibilliko dira abadeak eta prailleak gure errietako mutiko bigun eta biotz onekoak eliz-ikastetxeetara eroaten. An artuko dabe euren buru eta biotz garbietan azirik onena eta azierarik bikañena. Andik sortuko dira eliz-gizon jakintsuak, gotzain aipagarriak, mixiolari gartsuak, baita be, gizartean gizon burutsu eta buruzuagi izango diranak.

Euretatik bat Leonardo Badiola dogu. Franzizkotarren ikastetxean, beingo-beingoan, erakusten dau bere

izate eta buruaren bizitasun. Amabi urte bete orduko Peru'ra ekarria izango da. Eta emen eliz-ikasteak amaiturik Meza Barria emongo dau. (1879, dagonillak 7).

Bere lenengo eginbearra gazteen aziera eta mixiolanek izango dira. Eginbide onetan berarizko garra eta trebetasun agertzen daualako, Peru'ko frantzizkotarren ikastetxe guztien kargudun egiña da. (1903-1907).

Peru'ko frantzizkotarren artean Probintzia barria sortu zanean, emengo Nagusi izentatua izango da. Ointxe bai agirian ipiñi bearko ditu bere buruaren zurtasuna, bere izakera osoaren gaitasuna, eta agintarizarako egokitasuna.

Bere Nagusitzari dagokionez, bi bider, Erroma'ra joango da frantzizkotarren Batzar Nagusira. (1909-1921).

Gure artean esan oi dogu: "Gizon asko eta prakadun gitxi". Lurralde onetan be esan bearko: "Kristiñauak ugari, baño mixiolariak urri". Ori dala ta, egiñalak egingo ditu Kristo'ren mixiolariak, an eta emen, batu ta egokitze.

NAUSIGOA

Prailleen artean agintaritzta eta nausigoa? Ondo al dago ori?. Egia esateko, gizartearen bizibidean beti eta edonun bear dira aginduak eta agintariak. Baña Kristo gure Jaunaren bidetik: "Zuen artean aundiena izan nai dauana, bedi zuen serbitzari". Izan be frantzizkotarren artean euren buru diranai "Serbitzaria" esaten dautse.

Aita Leonardo beti izango da serbitzari ona, zuzena eta leiala. Ortarako aparteko ganora eta iasa dau. Origaitik ogeitamar urtetik gora frantzizkotarren etxeetan izango da Nagusi eta Probintzialaren ordezkari. Ikustekoa da, ba, zeñen trebea ta baliotsua dan gure aita Leonardo!

Eliz-legeetan aparteko maixutasuna adierazoten dau eta bere iritzi jakintsuak entzutera etorriko dira Nunzioa ta Gotzaiñak, eliz-irakasle ta abadeak.

Lurralde ontarako argi ederra izan zan aita Leonardo, zerurako biztu zan 90 urte zituala (1946).

Goian bego Gernika'ko seme argia ta ospetsua, "eman da zabal zazu munduan frutua".

URIGUEN'TAR ZENON

"CANTINFLAS" ANTZELARIA

ZER gure aldizkariko nire irakurleak, bear ba'da, auxe itaunduko dauste: Zelan otu jatzu gai au artu eta onetzaz idaztea? Txotxolotuta zagoz ala?

Ez artegatu, ez, nire irakurle zintzook!

Ikusiko dozuen lez, Cantinflas il zanean, eta izparringi ta aldizkariak berari buruz ainbeste gauza esaten ebenean, neure burura etorri jatan auxe: Nire izeko bat, Orozko-Ibarra'ko Atxeta nire etxean jaioa zana, Bilbao'ko gizon bategaz ezkondu zan eta lau edo bost seme-alaba izan ebezan. Oneitariko alaba bateri zaletasuna sartu jakon antzelari edo komediante izateko. Aitak, amak eta etxeakoak aolkuak eta onuak aurka emon eusoezan, baiña berak iñori jaramonik egin barik antzelarien bizimodua artu eban. Orduan etxeakoak etxetik kanpora bialdu eben. Eta orain diñot nik: Ondo egin ete eben gurasoak, Cantinflas'en bizimodua ikusita?

Beste errazoi bat geiagok be eragin eustan gai oneri buruz idazteko. Gizon ospetsu ta baliotsu au il ondoren, bere gorpua erre egin ebela eta autsa sendi-illobian gorde, entzun dogu. Eleizeak orain izten dau au egiten, baiña len ori egiten ebenak zigortuta eta eleizatik kanpo geratzen ziran. Ez dot uste Mario Moreno'ren (au zan Cantinflas' en izena) guraria ori izango zanik. Nire gogaerea eleizearena izan da. Ona emen zer diñodan "Angosto'ko Ama Birjiña" neure idaztitxuan, azkenengo atalburuan: "Paulo deunak Korinto'koai idatziriko lenengo eskutitzean XV atalean diñoanak biotz-ikara emoten dausku: Izan be, illak biztuten ez ba' dira, Kristo be ez da biztu, eta Kristo biztu ez da' da, alperrekoa da zuen sinismena". Aitamen onetatik ondoren au ateraten dot nik: Jainkoaren errian sinismena berotzeko, apostoluaren ardura ori, ildakoen biztuerea sinis-

tea, bearrezkoa dala eta gaurko gizona ain sinisgogorra dan ezkeru, azkena atsegingarriago biurtu bear dala. Orregaitik, Cantinflas' en gorpua erre-auts biurtu ebena jakin nebanean, min aundia artu neban. Aldi onetan ondo etorriko jaku aitatu dodan idazti-zatia gogoratzea eta beste idazlan baten goratu nebazan "Lorategiak" gogoratzea.

Miota'tar Aita Eleuterio'k zuzentzen dauan "Redencion" aldizkarian Gerrikabeitia'tar aita Honorio'k idaz-lan eder bat idatzi eban gai oneri buruz. Idazle jakitun eta trebe onek esan ebazan jakingarri batzuk gogoratuko dautzue-daz: "Kolonbia'ko Bogota uri-buruan eta Kali ango beste uri baten egin-barriak dira olako illerriak eta "Oroimen-Lorategiak" deritxoe. Arri-illobiak lurraren barruan dagoz askotariko loraz ingurututa. Sendi bakoitxa joan leitekera ara illen gomutakia barriztau eta otoitz egitera eta illobiak apaintzeko zugatz txiki edo lora usaintsuak eroan bertara.

Gure Mario Moreno "Cantinflas"ek il zanean, 83 urte eukazan. Orrek esan gura dau ainbeste lan egin arren, lagun-urkoak poztuteko ba-ekiala bere bizitzea zaintzen. Griña txarrak ezi eta gorputzeko indarrak gordeten, dana Jaungoikoaren legepean.

Bera il baiño ille batzuk lenago, bere zinealdiak agertzen ziranean, poz-pezik ikusten gendun, zine orreitan Jaungoikoaren aldeko gaiak erabilten ziralako. Bere jantzia geienetan Mexiko'ko zamalariena izaten zan eta pozik artzen eben bere aberriko lagunuen artean apostolutza-lana egiteko.

Augaitik, batez be, ez jakun ondo etorri bere gorputza il-ostean, bat-batean, auts biurtzea.

LETONA EGILUZE' k (+)

EUZKADI'N ESPANI'K IRABAZI

Mingarria, benetako abertzaleentzat. Egi mingarria, baiñan egia.

Arro esan dau Mosquera "Unidad Alvesa"ko buruzagiak: "En Alava los no-abertzale somos los mas. Eta egia esan dau. Egi minkatza, baiñan altagutziz egia. Araba'n geienak, ez dira abertzaleak.

Araba'ko autarki-kopuruari begiraldi bat emotea naikoa da Mosquera'k egia esan dauala ikusteko:

ABERTZALEAK:

EAJ (26.235) + HB (14.670) + EA-EUE (9.038) = 49.943

Españizaleak:

PSE-EE (40.825) + PP (30.547) + UA (16.594) + CDS (1.811) = 89.777

Ia-ia bi aldiz geiago españizaleak.

Aundiagoa da oraindik Nafarroa'n abertzaleen eta españizaleen arteko ezberdintasuna, españizaleen alde. Ikus:

ABERTZALEAK: 45.799. Españizaleak: 242.887. Zenbat aldiz, – o! Euzkadi gaixoa – zenbat aldiz españizaleak abertzaleok baiño geiago?

Ez al dagoz zearo eroturik, oiuka ta iraultzabidez Nafarroa Euzkadi'ra indarrez sartu naiean dabilzan zentzurik gabeko txoro orreik?

A! nolako lana daukan oraindik egin bearra eusko-abertzaletasunak!

Baiñan arazoa ez da Araba'koa eta Nafarroa'koa bakarrik. Gipuzkoa'n bertan, Euzkadi'ren biotzean, zer da gertatzen ari yakuna?

Ikus dagiguzan Gipuzkoa maitagarriak aurkeztent dauskuzan zenbakiak:

ABERTZALEAK: 236.555. Españizaleak: 148.139.

Gipuzkoa'ren erdia baiño geixeago españizalea dogu! Eta ez dagigun aztu, autarkirik emon gabe gelditu diranetatik ere, geienak, abertzaletasunik

gabeko jendeak dirala: Aberriagaitik axolik ez jaken jendeak.

Ta Bizkai?

242.410 autarki jaso dabez Bizkai'n iru Alderdi abertzaleek, eta 319.151 españizaleek. EUN MILLA autarki geiago Euzkadi'ren askatasunaren etsaiek!

Ai Bizkai, Bizkai! Arana Goiri'tar Sabin'en aberri! Bizkai...!

Ego-Euzkadi osoan españizaleak askoz geiago dira abertzaleak baiño: 547.707 bakarrik abertzaleak. 799.954 españizaleak.

Eta askoz larriagoa da oraindik gure egoera, autarkirik emateke gelditu diran 613.889 oiek ere abertzaleak ez dirala gogoan artzen ba'dogu.

Bai; badakit, orrean artean abertzaleak ere badirala. Ezagutzen dot nik, abortoen kopurua ez auzagotzeagaitik autarkia PP'ri emon dautson abertzale bat baiño geiago. Aurgaltzeari askatasun geiago ematekotan dagoz Pesoetarrak. Aznar'ek, orain arteko aborto-legea ez dauka kenduko esan dau, baiña abortorako askatasun geiagorik ez dauka emongo. Orregaitik, gaiztakeri aundiago bat eragozteko, okerkeri txikiago bati emon dautsoe beren autarkia. Ta abortuari-buruz beren jorkaera nolakoa izango dan Alderdi abertzale katolikoe esan ez dabelako, eta alderdi oneik len erabili ebena ikusiz, orain erabili eikeenak batere konfiantzarik emoten ez eutselako, biotzeko samintasunik aundienez, autarkirik emon gabe gelditu dira. Abertzaleen artean, Jainkoari eskerrak, asko bait dira oraindik, Arana Goriri'tar Sabin'en antzera, abertzale baiño leenago kristau diranak. Alderdi abertzale katolikoe, gutxienez Aznar' ek agindu dauna agindu ba'eben, ez ziran gizon-emaume bikain oiek autarkirik eman gabe geldituko. Baiñan, orrela jardun diran abertzaleak ez dira geiegi. Autarkirik emon gabe gelditu diranetan geien-geienak, Aberriagaitik ardurarik txikienik ez daben errikideak doguz.

Ba... autarkia Alderdi españiarrei emon dautsen

799.954 areikaz autarkirik emoteke gelditu diran 613.889 beste aiek alkaratzen ba'doguz 1.413.845 dira Euzkadi'ko ezabertzaleak, eta onein aldean 574.707 besterik ez abertzaleok.

"Autodeterminazioa" eskatzen asteko, dotore gagoz!!!

Españi'ren aurka, ETA'ri jarraituz, tiroka gudan asteko ere... era egokian gagoz!

Abertzaletasuna indarrez, eta guarda zibillak illez ezabertzaleen artean esnaerazteko, – ori zillegi dan gauza ba'litz ere –, a nolako egoera bikaiñean aurkitzen garan!

Jelzalee'k pozik agertzen yakuz, naiz Bizkai'n itxarotzen eben seigarren diputadua atera ez, millakatxo autarki batzuk geiago irabazi dabezalako. Zer balio dabe autarkitxo orreik, españizaleak oraindik berea daben autarki-kopuru izugarrien aldean?

EAtarrek, auteskunde-ekintzan alderdibitasun edo bipartidismoaren alde egindako zabalkundeari jaurti gura dautsoe galdu dabezan autarkien errua. Baiña autarki orreik orren errez españizaleengana igaro ba' dira, autarki orreik ez dira sekulan abertzaleak izan. Ez ote dira EA'k galdutako autarki orreik EAJ'k irabazi dituanak?

Idigoras' ek barriz, HB' k izan dauan galera ugarria, EAJ, Gazteiz'ko Jaurlaritzza osotzeko, PSOE'rekin alkartu izatearen ondorioa dirala esan dausku. Idigoras: Zergaitik ez dautsazu ETA'ren gaiztakeriek Euzkadi'i egin dautsoen, eta orain zuei ere egiten dautsuen, gaitzari begiratzen?

Ta nora joan dira zuek galdutako autarki oiek? PSOE'ra! Idigoras: Autarki orrein emoillean, Mario Onaindia bezain sasiabertzaleak bait ziran.

Era ontan jarraitzen ba'dogu, urrengo Lendakaria, Euzkadi'ko lendakaria, sozialista españizalea izango dogu. Sozialista españizalea Euzkadi'ko Jaularitza. Txiki Benegas?, Jauregi? Mario Onaindia bera? PSOE da ba iru probintzi oneitan irabazi dauana. Baita Euzkadi osoan ere, lau probintzieta-ko autarki sozialistak bateratzen ba'ditugu.

Larria da gure egoera. Estatua lortu, estatua zabaldu eta beste gaiñerako gauza guztien aurretik gure politik-eginkizun aundiena, Euzkadi abertza-
le biurtzea da. Zertarako dogu estatuto aberatsago bat, gure Jaurlaritzak Gazteiz' en eta gure Euzka-

di'ren Lendakaritzak sozialisten eskuetan egon bear ba' dabe?

Zertarako askatasuna bera, Euzkadi'ko jenderik geienak españizaleak ba'dira? Lasterkiderik geien naimenaren aurka indarrez ezarritako askatasuna izango litzake ura, eta indarrez ezarritako gauzek iraunpenik ez dabe izaten.

Profetak bear dauz Euzkadi'k, politikariak baiño geiago; profetak, Euzkadi'ko biztanledia abertzaletasunez igurtzi, abertzaletasunaz jantzi, abertzaletasunean bataiatu, eta abertzaletasunean sendotzeko. Artzalluz, Garaikoetxea, ta bi orreitariko bakoitzaren jarraileok, aztu egizue antziñakoa, artu eizue oraingo giroa alkarrenganako gorrotorik gabe, eta ekin eiozue geroa Euzkadirentzat irazeko abertzaletasunezko profezigintzari.

Ta zuk, Idigoras, zurea "sozialismo real" dalako ori, itz argiz esanez komunismoa dala zure eginkizuna danok jakin arren —komunismo ori gerorako utzita asi zaitez zu ere, soilki abertzaletasun zigur baten alde profezigintzan.

Agian, politikagintzak puskatu dauna, profezigintzak bir-bateratu leike.

Alkartasuna bear dogu ba Euzkadi euskotartze-ko. Eta askatasunaren orde zatiketa da gaur Euzkadi'n nagusi.

ETA'ren giroan asi zan Euzkadi'ren oraingo zatiketa au sortzen: zatiketa izkuntzaren barruan zori gaiztoko "el batua"ren bidez; zatiketa politikaren barrutian, ETA'gandik jaiotako EE'ren bidez. Gero EE bera zatitu zan; ta, azkenean, zatiketa sortu zan, erarik negargarriean, EAJ'ren altzoan ere.

Eta, bein bitartean, jakiña, Espāni euzkadi'n garaille.

Iriki daiguzan begiak eta ikusi dagigun, erruak norenak diranaren billa ibiltzeke, barriro guztiok alkartzeko garaia iritxi yakula, "el Pais Vasco-Navarro", yayoki, Euzkadi biurtu dagigun.

LATIEGI'TAR BIXENTE



"IDAZLAN AUTATUAK"

Urte bi lez ospatu genduan Karmeldar santu aundiaren Jaiotz urte-urrena; 1591-an il zan an Ubedako Karmeldar komentuak. Karmeldar santu ta Olerkari ospetsua jai eta idezlan askoz omen-dua izan zan mundu zabalean. Buru kaskarrak uste dabe edozein memelori eskintzen jakozala olako omenak; ez mutil! mereziak bear dituzu ortarako, ez barne-sistak.

Karmeldar santuak merezi zituan egi-egiaz eta egin jakozan; gaur izan be ao batez diñoce dogula gure arteko lirikar olerkaririk onena, egoki etorkon bera santu ta Jainko-zale lez, olerkari ta barriztataille lez ekiñi jakona.

Karmeldarrok euskalerrian beintzat, ez giñan atsenengo izan ari eskiñitako omen dietan. Itzaldi ta solasaldi asko erri ta aleizetan, irriak etziran ixildu, eta telebistak, izparringi, aldizkari eta gainera-koak paper unea bete eben, etxeko ta atzerriko. bipil jokarurik.

Euzkalerrian batez be iru lan daukaguz; iru liburu aitatzea merezi dabenak: "donibane Gurutz, Olerkari", "Loiolako Iñazio eta Joan Gurutzeko", "Idazlan autatuak", urrenez urren aitaturik.

1.— DONIBANE GURUTZ, Olerkari. Ez iñori aurea artzeko amoz. baiña auxe dozu sail onetan lenengo agertu zan lana. Neuk idatzia. Aurretik be sari gogotan erabillitakoa. nunbait, giro egoki zain luzez egona. An-asi askotan irakurri ta ausnartua, bai koruan eta bai erreka bazterrean azkenez orra aren omenak dirako lan ez exkasa.

Goi ta bee, zabal ta lodi, idazlan mardula, apaingarri dotorez jantzia. 341 orrialde ditu, letra argi ta ederrez. Barnean daroaz, urte batzuk dirala Ubedan izan nintzan arratsalde baten ango korura joatean orma laukietan euskaldun izeneko batek itxitako ainbat marrakzi bikaiñak be.

Argia benetan Juan Gurutzekoa, gaztetan ikasle zala gero irakuriz geitu eban eder-griñaz gero geitua, mistika bizitzaz ugaritua, edozein momentuan eta lekutan, Jainkoaren aztarna aurkituz. giza- seme aundia billatu zan, ardura askoz ordena barruan bete izan arren. baeban oindiño astirik ainbat gauza eder idazteko. Bizi guztian sendotu ta indarturiko griña onek. ots, poesirako gar orrek, bere frutu ederrak emon zituan: ainbat olerki eder, "Karmel Mendirako Egoera". "Gau Illuna". "Maite-Kanta" eta "Maite Sugar bizia" olerki bizitan asetuak.

Nik neure jardun apalean onan banatzen ditut aren lanak, asieran aren bizitza. gorabera askoz apaindua, Karmel Mendirako igoera, (Jau liburu) poesi pillo baten ondoren. "Gau illuna", "Maite-Kanta (40 estrofa) y "Maite sugar bizia (Lau kanta)": Liburuak gitziz 341 orrialde.

Zati danak dituzu garrantzi aundikoak santu-olerkari aparteko aren burua adimenatik, ikusi ta ausnartuz. Irakurri ta ikasiz lan gozotan burutuak. Eta nik, irakurle, zuri. aren eriotz urte-urrenean eskiñia. On daizula.

Niri atsegin jatan lez, zuri be atsegin bekizu esku dozun au. Idazle gogoko beti be Donibane Gurutz, bai koruan otoiizerako, bai ibai ertzean astitsu gogoznartzeko. Jainkoaren zer guztiak lez ederra dariola daukazu: beraz. eder-zale ba zara, pilpil jarriko dautzu eder-egarri jatzun barrua.

Ona zeuk be irakurri ta ikusi daizun aren bi olerki ederren eta berak arduraz azalduen asierak

"Nora joan zara, Maite
nun baiña gorde zara, Maitea
ni emen oiuz itxirik:?
Ni zaurtuta iges
zoaz oreña legez;
emen nozu deika, ta zu joanik.

Eta beste au:

Oi" maite-sugar bizia
samur zauritzen dozuna,
neure arima erdian:
Orain ez bai zara muker.

Aapali biok eta ingurukoak azaldu ebazan batez be guri baizen gogotsu, aren Jainkoz borbor egoan arimeak.

2.— "Juan Kurutzekoa" deritxon bigarren liburuak azken-aldian argitara emon dan arren, askoren lanez aurretik osotua izan da. Liburu mardula eta gogo onez egiña. Ezagun neban Karmeldar Santu aundiaren idatzietan datorren Jainko-garra, poesi gozotasuna eta barne-guria eta orren dirdira argi erakusten daukue lau idazleak.

OLERKIAK

1.— Asieran bazen Itza.....	39	IV.— Beti darion iturria	60
2.— Biengan jatorri zuen.....	41	V.— Gau illunean	62
3.— Emazte maitale zuar.....	42	VI.— Artzaitxo maitemindua.....	63
4.— Ala biz-zioen Aitak	42	VII.— Maitasun- gar bizia	64
5.— Goitik adierazi zaien.....	45	VIII.— Bizi naz baiña ez neugan.....	65
6.— Arren bai arren eginez.....	46	IX.— Jainkoazko murgillaldi baten...67	
7.— Emaztea an bizi zen.....	47	X.— Maitearen eizan	69
8.— Orduan ots egin zion.....	48	XI.— Aberik ez ta aberik bai	71
9.— Jaio bear zueneko	49	XII.— Edozein ederren jarrai	72
II.— "Super flumina Babilonis" ..	50	XIII.— Gabonetakoa	74
III.— Kantu espirituala.....	53	XIV.— Onbidea labor	75

KARMEL MENDIRA IGOERA

Kapitulua: 1.— Arimak igaro bear dituen gaualdi nagusi biak. 2.— Zergaitik esaten jakon gaua eta zenbat gaualdi dituen 93. 3.— Sentzunen bizitza ezi bearra 94. 4.— Izakien alderako loturak urrutubearra 96. 6.— Griña okerrak arimari egiten dautsoezan kalte nagusiak 97. 7.— Griña okerrak alamera eta miña ekarten dautsoela arimari; illundu eta itzutu; loitu; epeldu eta indargetu egiten dabela 99-100-102. 13.— Sentzumenaren gau onetan sartzeko burubide batzuk 104. 14.— Maitezko antsiz sutan biotza 107. 15.— Arima, bere etxea itxi ondoren, eroso ta aske 108. Lenengo liburukoak direz onek (Norbere ekitezko zentzunen gaua). Bigarren liburua (Norbere ekitezko gogoaren gaua. Adimenaren garbiketa) ezten dauku 141 orrialderarte. Irugarren liburua (Oroimenaren eta naimenaren garbiketa) 152 orrialderaño.

GAU ILLUNA

Lenengo liburua (Sentzumenaren norbere egiterik bako garbiketa), irakasten dauku 184 orrialderarte. Bigarren liburua (Jainkoaren eraginpeko gogoaren gau illuna) 209 orrialderarte.

KANTU ESPIRITUALA: 213 tik, 307 orrialderarte.

MAITASUN GAR BIZIA: 313tik. 334orrialderarte.

E S K U T I T Z A K A Z amaitzen da: 341 tik, 352 orrialderarte-koaz.

GIZON AUNDI BI

"Loiolako INAZIO eta JUAN GURUTZEKOA. Bata euzkalduna eta bestea gaztelarra. Julen Urkizak 1990-an; "Karmel" aldizkariaren ordez, argitaratutako lan mardula.

INAZIO LOIOLAKO'AREN BIZITZA

Inazio, Beltran Yañez Loiola-ren semerik gazteena. Erreinuko andikien zerbitzuan jarri zen gaztetxo zelarik. Zaldun liburuak zituen gogoko, zaldunen abenturak zeralbitzan gogotan, eta bere balentriak ari eskaintzeko goi-mailako dama aietariko batekin egiten zuen amets. Gauza andietan pentsatzen zuen, ameskeria utsak izan arren, ez bait zirudien amets aiek inoiz egia bihurtuko zirenik.

Kristo aurkitu ondoren, erregistroa aldatu zuen, baina bere andi-ametsak ez zituen alde batetara utzi. Beste santu ospetsuek egin zituzten gauza bikainak zergaitik ez zituen, bada, berak ere egingo?. Errege barri bat autatu zuen, bandera barri baten itzalpean burukatuko zuen aurrerantzean eta bere Jaunaren aldeira zerbitzari berriak ekarriko zituen. Kanpaina orretarako arekin bildu zirenak Jesusen adizkideak, elkargokak, Jesusen Lagundikoak izango ziren.

Kanpaina berri bati ekingo zion, armarik indartsuena Gogojardunak izanik. Orrela tiranduran iraungo zuen beti, arazo ugarien artean bizitzaren azken unerarte. Erdi Aroko zaldunen antzera, ideal andiko gizona izan zen, ekintzailea, saiaturia, nekazina, iraupen andikoa. Bere lagunak eta Jainkoaren Erreinuaren zabal-kundea gogoan zituela, kezka eta arduraz iltzen da. Jainkoak eman zion egitekoa ori zala uzte zuen eta azken arnasa emon arte leial iraun zuen orretan.

JUAN GURUTZEKO'AREN BIZITZA

Familia beartsu batetan jaio zen. Aurtzaroan eta gaztaroan bizi izateko bear bearrezko zirenak ere falta izan zitzaizkion.

Umezurztegi antzeko batetan sartu zen, barruko gisa. Eleizetan meza eraso eta beste lantxo batzuek egiten zituen; geroago, ospitaleko gaisoei laguntzen aritzen

zen. Astiuneetan Josu lagunaren ikastetxe batetan ikasten zuen. Jainkozaletasun, gaisoen zerbitzu eta literatura eta latinaren ikasketa giro onetatik karmeldarren nobiziadura jo zuen.

Benetan gogoko zuen bakardadeko bizitza. Gogoetari emana zan. Otoitz eta penitentzia ugari egiten zuen.

Nobiziadua amaitu ondoren, Salamanka-ko komentura bidali zuen, garai artan egin oi ziren eliz-ikazketak egitera. Komentuan, beste guztien artean, Joan nabarmentzen zen otoitz eta penitentzia egitearren.

Salamanka-ko Unibertsitate eta komentuan ez zuen aurkitu nai zuena. Ez dakigu zer falta zitzaion edo eta zer sobera ikusten zuen ango bizitzan. Azken batez beintzat, gogoeta sakonak egin ondoren, karmeldarren ordena utzi eta Kartuziarrenera joatea erabaki zuen. An kotenplaziozko bizitza egiteko bakardade, isiltasun eta ingurune egokia aurkituko zituen. Ori zuen gogokoena.

Ala bear eta, Avilako Teresarekin topo egin zuen Medina del Canpo-n. Onek, nai zuen guzti ori, Karmeldar fraideentzat pentsaturik zuen erreformaren barruan aurkituko zuela ziurtatu zion. Joanek onartu zuen Teresaren eskaintza.

Karmeldar fraide barrien artean ongi zebilen. Kartuziarrengana ez joatearen damurik ez zuen inoiz agertu. Erligioso gazteen azieran gogotsu parte artzen zuen, baita fundazio barriak egiten eta gobernatzeko ere. Apoztolutza lana, jende elizkoiekin, lekaimeekin, Karmeldarren elizara joaten zirenekin gogo biziz betetzen zuen. Baina bakardadeak liluratzen zuen beti. Lekukoek diotenez, ordu luzeak ematen zituen otoitzean eto izadia miresten komentuko baratzean, txokoren batetan ezkutaturik edo kobaren batetan sarturik. Bizitzaren azkenerantz, Andaluzian komenturen bat autatzeko esaten diotenean, La Pañuela autatzen du, bakardade andiko komentua. Bertan oso ondo eta gustura zegoela diosku.

Gizon isila, bakardadean otoitz egiten oso zalea. An, bakardadearen gelditasunean gizakiekin arretan zuzenetan eta ekintzetan baino obeto ikusten zuen bere burua, ekintza oriek apaiz-lanak izan arren ere. Bakardadean isiltasun eta otoitza izan daiteke are goiburua. Orrela ulertu zuen bizitza eta bizi ere orrela bizi zan.

MUNGIALDEAN BANAKAKO BERBAK

BERBA BI

Mungia'n beste erri askotan'lez, aldaketa ugari egon dira azkeneko urteotan. Esaterako, urte gitxiren barruan Mungia, nekazal erri izatetik, industri erri izatera eldu da.

Ori da arrazoi garrantzitsuenetako bat, beste askoren artean. Baserrietan ezagututen ziran landaren izenak, antziñako labrantzarako tresnen izenak, txorien izenak, bedar motak eta abar luze bat, gure egunotara iritsi edo eldu ez izatea.

Gure arbasoek gauza bakoitzari bere izenetik deituten eutsoen, baiña urteak pasa ala desagertuz joan jakuz.

Nik egin dot neure alegiñ txikitxua eta urte bi lotu barik neure agendatxoa aldean darabildala, lortu dot ia desagertuta egon diran berba batzuk, eta geure eguneroko bizimoduan sarri entzuten doguzan berbak batutea.

Sarri askotan, guretzako berba batek garratzirik ez daukola, beste leku batzuten ez dabe ezagututen, eta ez dago azago joan bearrik, berton Mungialdean, kilometro gitxiren barruan berbak asko aldatuten dira eta.

Printzipioz, berbak euren familietan banatu eta argi ez daukadazanak aparteko zerrenda luze baten ipiñi dodaz.

Entretenigarri egingo jatzuezela ta nago, nik batutako berba bereziok; eta agur bero bategaz agurtuten zaituet.

LEGARRETA TAR ASIER

ERREMINTAK EDO BASERRIKO TRESNAK:

Urkulua: Antziñeko labasuetan artoa erretan zanean erabili oi eben tresna da. Mango edo asta luzea eukan ta labasuaren barruan egozan artoei buelta emoteko erabilten zan.

Zurruna: Burdiak aurrean ezpatea eta atzeko aldean palu bat eroaten dau, bedarrak kargetan direnean jausi ez daitezkan, eta bien bitartean doa zurruna.

Porkerea: Labrantzarako erabilten zan tresna bat da. Lau ortz daukoz eta ago antzeko sillotxo bat, andik artoa, edo beste edozer, botaten eutsen.

Esia: Antziñe txarrieri "osalia" emoten jaken jateko. Osalia izaten zan kalabazea, aza-orriak, uruna, naboa, erremolatxea, eta beste elementu batzuk nasteta. Eurok txikitzeo tresna da esia. Lauburu baten antza dauko, baiña aldeak biribilduta eta zorrotzuta. Frantsez esia: Esiaren antzekoa zan baiña, ebagiteko ago ezbaridiñagaz.

Gorue: Len galtzerdiak eskuz egiten ziran, ta palu zorrotz bat erabilten eben ardi lanea ipinteko.

Gardak: Ardi lanea gardatu (kardar) egin bear izaten zan eta zepillu baten antzeko tresna bateri esaten jakon "gardea".

Goldeak eta Laiak: Labrantzarako erremintak. Lurra zulotu edo urrutu egiten eben.

Karramarroa: Au bere labrantzarako tresna zan. Itxuraz lauki erakoa dogu eta punta zorrotzak daukoz aspikaldean. Lurra urrututen dau eta zaldiari ipinten jakon. Geroago ereiteko erabilten eben.

Trigerue: Bein indabak eta batuta dagozanean azala eta zatarkeriak kenduteko (GALBAEA).

Iristekoa: Colador.

Laratzue: Bekosuan egoten dan engantxea edo lotura kateari lotuta, tarterak eta lapikoak eskegiteko.

Estoa: Mokillak apurtuteko erreminta. Saratz (sauce) bigunekaz egindakoa.

Eisia: Labrantzarako tresna bat. Erretena edo karkabea egiteko.

Atxurra: Azada.

Kakoa: Atxurren moduko zotz edo agin biko tresnea.

Eskuberea: Rastrillo.

Kodañea: Guadaña.

Sorrostaria: Kodañea zorrostuteko arria.

Agia: Biga.

Igitaia: Serra (Mungia'n). Hoz.

Giñerria: Eskoba edo orrats basto bat toki tontor-tsuak garbituteko.

Sarana: Cesto.

Sardia: Sarda.

BEDARRAK:

Bedar siporra: Ardiak eta ganaduak jan gura ezik dabilkian bedar basto bat, geinetan leku urtsuetan egoten da.

Siya: Terreno edo lur urtsuetan urtetan dauan bedar mota bat.

Intxurriya: Mungia'n. Enredadera, eta beste toki batzuetan "muerdago".

Iria edo irea: Helecho.

Birzaye: Birzai.

Zaiya: Salbado.

Garagarra: Cebada.

Galtzue: Paja.

MEIDUTEKO NEURRIAK:

Asunbrea: Litro bat eta erdi. Geinetan esnia izaten da.

Zelemiñea: Garoa, intxaurreak, urretxak eta abar neurtuteko ontzi bat da.

Anegea: 50 Kg.

Arroa: 12 kilo ta'erdi.

Erraldea: 5 Kg.

Gizelana: 365 metro karratu.

Peonadia: Erdal neurri bat da.

TXORIAK:

Mingorra: Agachadiza.

Mingor-piztojoa: Agachadiza chica.

Oillogorra: Becada.

Egaberea: Ave fria.

Basallarra: Abubilla.

Indi-eperra: Perdiz nival.

Ugerilloa: Polla de agua.

Oskillasoa: Arrendajo.

Mirue: Ratonero comun.

Okill txikerra: Pajaro carpintero menor.

Txontia: Camachuelo.

Gau-ontz zuriya: Lechuza.

Pato txikitxua: Zarzeta.

Durduria: Chorlito.

Txirtia: Bisbita comun.

Gau epela: Chota-cabras gris.

Txinyorra: Peti rojo.

Miru-baltza: Ratonero negro.

Txinboa: Reyezuelo, kurruka.

Txepetxa edo epetxa: Txotxin.

Txepetxiña edo pepetxiña: Carbonero.

Bela baltza edo belea: Corneja negra.

Bela nausia: Cuervo.

Birigarroa: Malviz.

Zozoa: Tordo.

Gaztela zozoa: Tordo de Castilla.

Mikia: Urraka, marika.

Gabilloia: Gabilan.

Eperra: Perdiz.

Galeperra: Codorniz.

Sasi-txoria: Carrocerin.

Pioa: Pardillo.

Ur-txoria: Mirlo acuatico.

Antzarra: Ganso.

Uso nagusiya: Paloma torcaz.

Uso txikerra: Paloma bravia.

Kanpoko birigarroa: Zorzal alirojo.

Artatxoria: Gorrion.

Kilgaroa edo kardu-txorie: Jilgero.

Elatxua edo elaia: Golondrina.

Eperdikeria: Lavandera.

Okilla: Pajaro Carpintero.

Kurlinkia: Zarapito.

Kurlika nausiya: Zarapito Real.

Amillotxa: Herrerrillo.

Gau-ontza: "Gebontz" (Mungia'n): Buho.

ASTEKO EGUNAK:

Astelena: Lunes.

Martitzena (Martzena; Gamize'n): Martes.

Egustena: Mi rcoles.

Eguena: Jueves.

Barikue (Eguketotxa; Arrasaten): Viernes.

Zapatua: Sabado.

Domekia: Domingo.

URTAROAK:

Udegoiena: Otoño.

Negua: Invierno.

Udabarria: Primavera.

Udia: Verano.

ILLARGIA:

Urek-bera: Menguante.

Urak-gora: Creciente.

Illargi-betia: Luna llena.

Illargi-barria: Luna nueva.

Illargia; Igetargia (Mungia'n): Luna.

EUSKEREA

PIZTIAK ETA ABEREA:

Ur-txakurra: Nutria.
Martiñetia: Martin pescador.
Ziruna: Siron.
Aramua: Araña.
Burriñoa: Asto emea ta zaldia nastauta. Atzeko-
zaurrera: Muloa edo mandoa.
Arrankariya: Trucha.
Ogei-gaztaia: Comadreja.
Sugontxilla: Lagartija.
Muskerra: Lagarto.
Barakilla: Limako.
Kiskillua: Fosinos.
Ipurtargia: Luziernaga.
Sugoia: Serpiente.
Angillia: Angila.
Ebroa: Kiskilluen neurriko arrain biserdun bat.
Erderaz: Locha.
Basordia: Jabalf.
Azkonarra: Tejon.
Katu-mixerra: Mangosta.
Basa-katua: Gato-montes.
Katu-jinetia: Jineta.
Kakarraltoa: Ciervo volador.
Mari-mitxi edo mari-gorritxu: Mariquita.
Urgerixoa: Rana.
Makeria: Txarri emia kumiakaz.
Arkelia: Txarri emia kume barik.
Ordotza: Kapatu bako txarri arra.
Txarri-apoa: Kapatuko txarri arra.
Urruxa: Ardi kume arra.
Bildotsa: Ardi kume emia.
Turankoa: Ganadu arraza bat. Idiak geienatan.
Eumia: Euntzaren kumia, arra naiz emia.
Ardia: Oveja.
Euntza: Cabra.
Akerra: Cabron.
Arittoa: Carnero.
Motxoa: Adarrik gabeko aittoa.
Zekorra: Ternero.
Bigia: Ternera.
Txitxia: Pollito. Oillendia eta oilloskoa: txitxia
baño apur bat andiagoa eta oilloa eta oillarria baño
txikiagoa. Ertaiñekoak.
Kapoia: Kapatutako oillarria.
Zaldia: Caballo.
Biorra: Yegua.
Lupue: Lupu izenak gauza asko esan gura deutsuz
gure lurraldian, esaterako:
Lupu: Oruga, escorpión.

Lupu: Artoak eukiten dauan gaizotasun bat.
Lupu: (Lupu-bedar): Bedar mota txar bat.
Lupu: Iragoia (Errigoiti).
Lupu: Edozeri esaten yako txarra dala adierazote-
ko. Esaterako: Gizon ori "lupu" utse da.
Sorgin-mitxi: Mariposa.
Lukia: Zorro.
Kirikolatza: Erizo.

LANDARAK:

Mimena: Mimbre.
Saratza: Sauce. Toki urtsuetan egoten da eta ez da
izaten altua.
Mallukiak: Fresas.
Gurguxe: Madroño.
Txakur-azia: Aza basto bat.
Sagar motak: Madari-sagarra, Reinetia, Urtebetia,
San Juan sagarra, San Pedro sagarra, negu sagarra,
kana sagarra.
Intxurra: Nuez.
Askasiya: Acacia.
Fagoa edo Pagoa: Haya.
Urritxia: Abellano.
Leizarra: Fresno.
Sugarria: Leña.
Klaudio okerana: Erd. Ez dago.
Madalen ikoa: Erd. : Ez dago.
DIRUEK:
Txakur-txikia.
Txakur-andia.
Errealia.
Marabedia.
Duketa.

EGUNAREN ATALAK:

Egurdatia: Eguerdia-arta= Por la mañana.
Egurdatertia: A media mañana.
Goizeti: Temprano.
Goiza: Mañana (Por la mañana)
Egurdia: Egun erdia= Medio día.
Goizaldia: Amanecer.
Atsaldia: Tarde. (Por la tarde). Arrastion: Bue-
nas tardes.
Illundia: Illun-aldia: Anochecer.
Gau: Noche.
Gauerdia: Medianoche.

ISTRUMENTUAK:

Inpernuko auspoa: Soiñue: Akordeoia: Acordeon.
Agoko soiñua: Musugitterria: Filarmonica o armonica.

TXARRIKIAK:

Lopia: (Buskentz lodia): Intestino grueso.
Buskentza: Morcilla.
Saieskia: Costilla.
Solomoa: Lomo.
Pernilla: Jamon trasero.
Soiña: Jamon delantero.
Txarripatak: Patas de cerdo.
Txarrimusturre: Morros.
Txarribelarriak: Orejas de cerdo.
Txorizoak: Chorizos.
Gibela: Hfgado.
Urdaie: Tocino.

BARRUKIYAK: Garunek, biotza, birikiyak, gultzurrunek. Guzti au taloagaz: Sartenekoa.

Lopia: edo Jaungoikoa: Txarria ilten danian buzentz andi ta lodi bat egiten da, orreri esaten deutsagu "lopia" edo "Jaungoikoa" (Morgaldean).

OSTANTZEKO BERBAK:

Tundia emon: (Errigoiti): Dar una somanta (pali-za).

Oia atondu: (Errigoiti): Hacer la cama.

Katu mardoa: (Errigoiti): Ermoso gato.

Gatzatua edo esnekiya: Cuajada.

Sospresia: Sorpresa; Sospresia artu "yoat".

Desajeraziñoa: (De+exajeracion); "Desajerasiñoa" ikusi dot.

Lotu: Mungialdean; parar; Umia "lotu" zaitez baketan.

Atoan: (aktoan); Al momento.

Berazkotan: Pirri: Pirrittola: Diarrea.

Dana dalakoa: El que sea.

Lupetzia: Basatzia: Barrizal.

Tripakiya: Tripas.

Askia: Pesebre.

Kasunaskia: Atziñe, txarrie ilten zanian gatza emonda gordetan zan kaxa andi baten, orduko sa-soian ez egoan otz-gailurik-eta.

Oria: Urune taloa egiteko amasatuta dagoenian.

Lapikoa edo lapikokoa: Cocido.

Albatia: (Albo-atia): Gortako atea izaten da geienetan.

Agia: Biga.

Laiñoa: Niebla.

Leia: Helada.

Iñetazia: Granizo.

Irekurtzi: Agitar.

Lantzarra: Prado.

Trugoia: Trueno.

Iñetua: Rayo.

Bart+gauian: Mungialdean, barkeubian: Anoche.

Bat bere ez: Mungialdean, baperez.

Astraka: Txakurak egiten dauana azurra lupera-tuterakoan.

Apareu: "Aparar": Oillogorra "apareu dot".

Brintse: Birrindu: Desacer.

Brintsia: Txorizoak edo lukainkak egiteko amasea, piperrik emon barik dagoenian oindiño.

Ortutsik: Oiñ-utsik: Descalzo.

Porralle: Ganaduak izaten daben gaisotasun mota bat. Anakak audituta edukiten dabez.

Atzeko tiria: Beiak txala eginda ostean dindilizka izaten dauan "Kor-doi ubilikala" (Baiñea).

Errenkuren: Preocupado: Nire ama "errenkuren" dau (dago).

Lur mokilla: Pedazo; Tocho de tierra.

Sasi poltsoa: (Sasi boltsia): Antziñako denboratan dirua ormazuloetan eta, gordetan zan. Dirua gorde ei zan boltzeak edo zorroak dauko "sasi poltsoa" izena.

Petrikillo: Curandero, charlatan, brujo.

Kia!: Que val.

Oba: Ni pensar.

Aldapa edo aldatza: Cuesta arriba.

Aurbera: Cuesta abajo.

Erdiz por erdiz: Erdibana: Repartir a partes iguales.

Lasteiya: Pajar.

Zirkiñik: Ni movimiento: Ez dau "zirkiñik" bere egin.

Porazuz: A base de: Urtien "porazuz" galdutako berbak.

Ortxe ementxe: ahi-ahi, poco mas o menos.

Txizillua: Aulki luze bat.

Leba edo ajola: Importar: Ume orreri ez dotso "lebarik" ezek bere.

Idi busterrria: Mungian.

Idi busterrriya: Meñakan.

Idi busterri: Katiken.

Txitxi-mikike: Zurrumurru: Rumor.

Solorik solo: De huerta en huerta.

Bai astoan uskiya: ¡Si flautas!

EUSKERA

- Buruto edo burugogor: Terco.
- Artiak artu eziñik: Insoportable: Ume ori "artiak artu eziñik" dabil.
- Motxaie: Ijitua; kittanua: Gitano.
- Inpentzadan: Sin pensarlo: "Inpentzadan" joan zan.
- Mendue: Injerto.
- Arian edo arean: Algo.
- Monyorra: Talletuko erramue. Orren ondoren talle bodea dator.
- Mukurre: egur mukurre: Tocho de madera, tronko.
- Uxela: Ojala.
- Saparra: Lapak gainian edukiten dabien zikinkeri-txoa. Sagarra kotxoak (pipiak) barrutik jaten daue-nian geldituten dan ondakiña.
- Muskilla: Ondakiña: Resto.
- Asia: Txakurraren sentidua. (Instinto).
- Asmeu: Notar. Percibir.
- Burutik eintxe: estar loco.
- Nor-zer: Donde que: Jakin egin bear da "nor zer".
- Gorputze egin dau: A hecho cuerpo: Ak mutil-txuek "gorputze egin dau".
- Zurtzeintze: Zurz+eginda: arrituta: arri+egida: alucinado.
- Ausnar: Rumiar.
- Arrapaladan: A toda prisa.
- Plazako nesgia edo mutilla: Chicos de buena edad. Maduros.
- Karrajua: Baserrietan egoten dan pasillua. Bere ezbardintasuna nabaria dogu, bertan pentsu-sakuak eta lanabes batzuk egoten diralako.
- Patiñe: Pozo.
- Bikotiya: Gemelo. (Bikotzen)
- Garriko ugela: Cinturon.
- Urrututa ill: Morir rebentado.
- Pentsuen: A empensas de... : Ume ori beti dago ama'ren "pentsuen".
- Arrosi: Bostezar.
- Areneu: Fregar: Eskilleria "arenetan" noa.
- Artezeu: Arreglar: Erloju ori "artezetan" eroan dot.
- Gezubeten: Al de cierto tiempo: "Gezubeten" eskian joan bear ko da.
- Etxera etorri "zaten": Belako'n.
- Etxera etorri "zazten": Mungia'n.
- Etxera etor "yaten": Meñaka'n.
- Etxera etorri "yatan": Jatabe'n.
- Euri lanbroa: Llovizna (Mungia'n).
- Euri lanbarra: Llovizna (Emerando ta Larrauri'n).
- Euri lamarra: Llovizna (Fika'n).
- Burrukoa: Almuada.
- Juboa: Camiseta.
- Atzariyen: Atzera+barriyen: Denuuevo.
- Arraskadan: En fila.
- Ostariyen: Ostera+barriyen: Denuuevo.
- Auspez: Boca abajo.
- Artadiya: Ardi+taldea: Rebaño. (Artegia)
- Barrutiye: Ganaduak bedarra ugari jaten dabentzarra edo zelaia.
- Fiñian diñotzut: Te digo en serio.
- Lantzean beñ: De vez en cuando.
- Ariketa: Areik+eta. Hasta que.
- Astion: Aste+onetan: Esta mañana.
- Arian bere ez: Ni pizca.
- Arrezkero: Arez+gero: Desde entonces.
- Orragiño: Orretagiño. Hasta ahi!.
- Oraindiño: Por ahora.
- Atagiño ta bere: Ni...: "Atagiño ta bere" ez deutso deitu ama'ri.
- Lagun: Mungialdean pertsona esateko erabilten dogu. Baita adiskide esateko bere.
- Esaterako: Ogeitamar "lagun" baiño ez ziren egon Eliza'n.
- Negar baten imiñi: Poner llorera.
- Barre zantzoka: Barre algaraka: Carcajada.
- Sopiña edo Txopiña: Hipo. (Sotña).
- Beste geiauko barik: Sin mas.
- Altzi bat: Un poco: Emen dekozu indaba "altzi bat".
- Errebezeu: Devolver. Vomitar.
- Atzazala: Uña.
- Txatxamarka: Pellizcar.
- Guruzu!: A que...: "guruzu" ez dakarrelal. (Gura dozu)
- Ardaue edaten asi "zatez". (Jatabe' n).
- Euki dua.: Meñaka'n.
- Euki dau: Mungia'n.
- Euki daua: Jatabe'n.
- Eudi doa: Laukiz'en.
- Munarriye: Muga: Piedra separatoria. "Muna+arria".
- Ortusantue edo kanposantue: Cementerio.
- Iyoako: En lo...: "Iyoako" ogeitamasei urtian ez da aldatu.
- Porlana: Cemento.

LEGARRETA'TAR ASIER.



OBLATAK

Latin-itz onek zer adierazo nai ete? Ezta arri-garri zu soil egotea, neu be orobat naukazu-ta. Il onen 5'an, barriz, zapatuz, arratsaldeko zortziretan aste artan ildeko Eusebio Erkiaga'ren omenezko meza bat zala-ta, Lekeitio'ko eleiz ederrean nengoan, goizean meza, itzaldi, kantu. Bazkari ta abar, Onaindiatarren eguna ospatu ondoren.

Ildakoaren illetak Begoña'n egin ziran. eta erabagi zanez aren jaiaterrian ospatuko ziran **oblatak** Zortzirak orduko an nintzan ni eleiza barruan; illun lenengo, baiña ni erretaul bikain-bikaiña miretsiz nengoala. Bertatik ixetu ziran altara nagusiko argiak oro, urrezko aurre-alde guztia dizditsu bihurturik. Nik aurretik be askotan ikusirik euki arren, oraingoan zoragarriagoa iruditatu jatan.

Astiro-astiro oñeixtarrez bete zan eleizea gero organu otsa jotzaille gaztearen atzamar-pean. Erria kantari; altaran bertako abade jator bat, ni laguntzaille nindula, erri-meza guztion artean gogoz abestua; irakurgaiak, itzaldia, otoitz bereziak, abesti gozo eta gaiñerakoak, Illa gogoratuz Jaunartze luzea. Kristau aundia zan Eusebio. Eleiztar artean nabarmen zan Ardantza lendakaria.

Meza-opariari amaia emoteko eta zanaren omenez, koruak Antiguako Amari, letra ta musika eder, gozo ta doiñutsu, ereserkia, aspaldiko urteetan abesten dana maisuki entzun-azo eban. Oso goratu genduan ondoren eleizkizun jatorra.

Emen ziran alkarri eskua-emonka Erkiaga'ren sendiko ta ezagun asko, joan jakunaren omenez egiña goratuz batez be. Emen agurtu nebazan nik be antxiña antxiñako lekeitiar adiskide asko, gerra danporan mendietan arrisku artean ezagutuak. Gerra aurreko jazokun batzuk be, alai ta bizi aitatu genduzan; antxe bertan, eleizan, plazan eta Udaletxean ospatu genduan Olerti-eguna esaterako.

Egun bikaiñak errez gogotan eroaten. Orduko Olerti-eguna ospe berroz egin zan. An zan Erkiaga be, gazte ta olerkari, ezin aztua. Nik be, Larrea tik ara joan nintzan onek, ezin gogotik uxatu jazokun niretzat bizia: eleizako meza ta kantu, plazako dantzaldi, Jai au Azkue Aitasemeai eskiña zan ezkerero, onein etxe-ikustea... Eta Udaletxeko bazkari joria.


Euskaldunak beti be, egite eder askoren ostean, oturuntza bipilla izan oi dau. Udaletxeko bazkarian ziran, beste askoren artean, mai luziluzeean, Aitzol eta On Alberto Onaindia, Orixe ta Olabide, ainbat Abade ta Lekaide, ainbat euskal idazle eta eder-zale Euskalerrri osotik ara joanak... Aita Jose Domingo eta ni, Klaudio Onaindia'k Larra'tik ara eroanok, Olabide ta Orixe'n ur-urre gengoan, eta mai aretakoan autua, ia bazkari-denpora osoan, Juan Gurutzeakoa izan zan, idazle eta olerkari, Oresa'koa buru zalarik. Ni, orduko, poeta lez lenprintzak emoten asia nintzan eta, ez-urrian, geunkan Erkiaga'ri zuzentzen nautsazan begiak. Aintzat artzekoa dozu jataldien ederra be.

Euskal idazle ona genduan Eusebio. Or-emengo euskal aldizkarietan langille ez ugari baiña iraunkor. Eguneroko lanak izten eutsozan lan-bitarteetan atsegin jakon arako ta onako euskal lanetan azkar jokatzera, bizitza osoan nunbait ainbat sari jaso zituan, baita orain urte bi Olertirena be. Nobela asko osotu ebazan, Lekeitio ta inguruko gaiak buruz; itxas eta lurrei buruz, ez gitxi.

Txalogarri da, osotu euskuzan euskal lanakaitik batez be. Euskalerrriak, bada, lan ori dala-ta, txalotu bei aren gomuta gizaldiz gizaldi.

AITA ONAINDIA

EUSKALDUN BARRIENTZAT



Zaldia zelan prestatzen dan jakiteko l'etik 106'gn zenbakia batu.




Martxintxu arazo ederrean sartuta dogu ta zuen laguntza bear dau. Lenbaitlen, bere etxera jouteko bidea aurkitu bear dozue.

AOLKUA

Zotiña kentzeko badagoz aolku ezagunak: arnasik ez artu, ura edan arnasik artu barik eta abar.


Orain beste aolku bat jakin dogu: belarrietako belarri-parpailla oztu. Ez da izotzik bear, naikoa da ur otza.

TARTEGARRIAK



Ur Korronteak

Erekek



Ez da zilagi

Debekatu dabe

KARMELE

KRISTAU BAINO LEEN EUSKALDUN

S. Insausti jaunak irakurri zun nere Kardaberaz Bazkuna'ri buruzko lantxo. Eskerrik asko, poza ematen bait digu iñork irakurtzen gaituanean. Eskerrak ere zure Euskera ta Kristautasuna idaztitan nere lana zirikatzen dezulako. Orrela aukera ematen didazu orduan esanak zertxo bat geiago argitzeko.

"Agustin Kardaberaz aitaren itzak irakurri ondore, norbaitek pentsa lezake Jaungoinkoa euskararen alde bere al-izate guztia jartzeko beartua dagoala... Bañan Kardaberaz'ek esan zituanak osorik aitatu bear dira edo ta bestela ixildu. "Oiek dira zure lenengoko itzak".

Lagunarte edo bazkun baten ikurriña jartzeko itz guztiak luzetxoak lirazke. Gazte giñan Kardaberaz Bazkuna ezagutu genduan. Gazte, euskaldun eta apaizgai. Eta "Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du" irakurri genduan Bazkunaren ate-buru, ikurriñ edo presentazio bezela, alako zarrada egin zigun biotzak eta Euskeraren alde lan egiteko griña suspertu zigun apaizgai giñelako, batez ere... Animaren ona aurretik nai gendun.

Ez gendun sekula pentsatu ori Jainkoaren zeregiña zanik, gurea baizik. Orregatik sartu giñan Bazkunean, gure lana zalako Euskerari laguntzea eta orretara Jainkoaren naia bete. Ez genduan sekula burura ekarri ori Jainkoak egingo zunik guk bitartean eskuak tolestuta eserita gelditu bagiña...

Euskalerriaren kristautasunaren ona nai gendun, orregaitik ondo iruditu zitzaigun **gauza orretan** gure eredu aita Kardaberaz artea.

Baiña orrek ez du esan nai gu orain berreun urteko pentsakera guziak (Aita Kardaberazena) artzera beartuak gaudenik...

Bandera eta ikurri bezela, apaizon bazkun baterako batez ere, "Euskerak burua jasotzea Jainkoak nai du" iruditzen zait zoragarri. Ortik ondorengo luzeak ateratzen ibilli gabe.

"Bukatzeke galdera bat: Zer diozute, aita Kardaberaz'ek nik marratu ditudan itz oiek, ala kristau baiño len euskaldunak gerala'esango al luke?" Idazten dezu. Marra-tutako itzak auek dira Mendizabal jaunarenak: "Por Dios no alborote tanto y d'jenos vivir con nuestros barbarismos de lengua, porque antes que bascongados somos catolicos".

"D'jenos vivir con nuestros barbarismos de lengua" ori beintzat ez zuan aita Kardaberaz'ek esango: kristau-dotriña obeto zabaltzeko euskeraz ikasten jardun zuan eta besteari erakusten, eta ez zan barbarismoekin pakean bizi-tzen gelditu... Lanari ekin zion, Euskera ikasteari, Mendizabal jaunak bear zuena.

Kristau baiño len euskaldun gerala" nere itzak dira. Kardaberaz'ek zer esango lukean itz oien orde...? Ez naiz sekula artara jarri. Jartzeko asmorik ere.

Da ala ez da?

Ona emen korapilloa.

"Porque antes que bascongados somos catolicos" ala "kristau baiño len gera euskaldun"? Korapilloak beti izaten ditu bi ari-punta. Nundik eltzen diozun, ortan dago auziaren erabakitzea.

Kristau leenago? Asmoan bai ("primum in intentione"); izatean ez, aizkena baizik ("ultimum in executione")... Kardaberaz'ek euskerea ikasi zuan kristauak egiteko.

Euskaldun ama baten semea naiz eta jaiotzetik esan nezake naizela "euskaldun'kantak dionez":

Euskaldun jaio nintzan

euskaldun naz azi,

euskera maita zidan

amak erakutsi...

Geroztik egin ninduen kristau bataioaren bidez.


Orra **leenengo** euskaldun ta **gero** kristau.

Bildur al zera erlijiorik nai ez duten euskaldunei arrazoi emango ote diedan "Kristau baiño len euskaldun gerala" esatean? Ez da ori nere iritzia. Beste aldetik, berriz, esaera ori oso zaarra da gure artean: Gazteiz'ko Seminarioan gerra aurretik aitu nuan lendabiziko aldiz konfesionalismorik nai ez zuten euskotarren aoetan... Eta nik argitu bezela egia da euskal gerala kristau baiño len: "bascos antes que cristianos"...

Ori ukatzea ez da gure oienganako erantzuna, nere ustez, beste au baizik: "euskaldun baiño len gera gizon" eta gizaki geranez Jainkoarekin artu-emanak bearrezko... Jainkoarekiko gure zerikusiak ortik sortzen dira leendabizi... Gero gerokoak.

Gaizki esanak barkatu.

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*

BBK
Bilbao Bizkaia Kutxa